


Enpresa

Hasiera batean, brainstorming batekin hasi ginen, bertan ateratako ideia batzuk izan ziren, liburutegi bat liburuak elkar trukatzeko, animalie ilaguntzeko elkarte eta kafetegi bat gendearen arteko komunikazioa sustatzeko.

Azken batean, ideiak elkartzeko erabaki genuen eta bertatik gure proiektua atera zen. Gure enpresa, beste herrialde batzuetan badago ere, gurean ez da hain ezaguna eta ideia ona iruditzen zaigu jendea erlazionatzeko, bakarrik ez sentitzeko...

Gure enpresa, kafetegi eta liburutegi bat da, biak batera. Txoko desberdinak izango dituen, mahaiak eta aulkiak, sofa edo puff txikiak, "chill out" bezalako eremuak... Gainera, bertan laguntza behar duten animaliak aurkituko dira eta hauek ere bere eremuak eta etxeak izango dituzte, lokal osoaz gain. Hala ere, ondo frogatu ezker eta gure baimena lortu ezker, hauek adoptatzeko aukera egongo da. Gure enpresaren helburua, publiko osoari ateak irekita egon arren, sozialki arazoak dituztenei, baztertua sentitzen direnei edota bakarrik sentitzen direnei zuzenduta dago, adibidez, alargunak, kanpotik etorritakoak... Horrez gain, bertan derrigorrezkoak ez diren ekintza batzuk egingo dira, komunikazio hori sustatzeko.

Ideiak bateratzea eta hauen artean lotura bilatzea izan da aurkitu dugun arazo zailenetako bat eta behin ideia izanda nahiko erraza izan da jarraitzea, ideia asko egon direlako hasieratik. Oraindik, gauza batzuk zehazten falta dira baino gure proiektua antolatzeke atal atalez joan gara. Lehenengo ideiak brainstorming baten bitartez aukeratu eta baztertu genituen. Hortik aurrera, zein bezero mota izango genituen azaldu genuen



MOWOI